SUBJECT SYLLABUS

Titulazioa	Ikasturtea
141.1	**2011/12**
Irakasgaiaren kodea eta izena	Noiz egitekoa
41104 Giza garapenaren psikologia	**2 Seihilekoa**
Taldea/Hizkuntza	
31 / Euskara	

Mota	Hizkuntza	DU kredituak	ECTS kredituak
OINARRIZKO PRESTAKUNTZA	**SPA-EUS**	**6**	**6**

Irakaslea

López Paz, Juan Francisco

JUSTIFIKAZIOA

Euskeraz eta gaztelaniaz:

Irakasgai honek hezitzailearen eta gizarte langilearen profila osatzen laguntzen du, gizakiaren bizi-zikloko bilakaeraren aldiei dagozkien prozesuak aztertuz, hala nola garapen fisiko eta psikomotorra, kognitiboa, afektiboa eta soziala; izan ere, azterketa horrek portaerak interpretatzeko eta esku-hartzeak egokitzeko bidea ematen du.

Esta asignatura contribuye al perfil del educador y del trabajador social analizando los procesos propios de los distintos momentos de la evolución del ser humano a lo largo del ciclo vital, tales como el desarrollo físico y psicomotor, cognitivo, afectivo y social, lo que permite interpretar los comportamientos y optimizar el desarrollo, adaptando las intervenciones desde esta realidad evolutiva.

ALDEZ AURREKO BALDINTZAK

-

IKASLEAK LORTU BEHARREKO EMAITZAK GAITASUN OROKORRETAN ETA BERARIAZKOETAN ADI

Euskeraz eta gaztelaniaz:

Gaitasun orokorra: Pentsamendu sortzailea (Gizarte Hezkuntzako Gradua). Irtenbide berri eta ezohikoak bilatzeko eta aurkitzeko prozesuak sortzen ditu. Zehaztuta: Modu irekian hartzen du informazioa, hainbat ikuspegitatik, eta ideia eta ikuspegi berriak sortzeko erabiltzen du.
Gaitasun orokorra: Pentsamendu analogikoa (Gizarte Laneko Gradua). Eduki desberdinen artean antzekotasun loturak egitea lortzen du. Zehaztuta: Antzekotasunak era intuitiboan erabiltzen ditu, ideiak lotzeko eta bere ideiak azaltzeko.

1. berariazko gaitasuna. Garapen-aldi bakoitzaren berezitasuna identifikatzea bizi-zikloaren ikuspegitik.
2. berariazko gaitasuna. Bizi-zikloko aldi guztien ezaugarri nagusiak azaltzea, arlo biologikoa, kognitiboa eta sozio-afektiboa kontuan hartuta.
3. berariazko gaitasuna. Egoera praktikoetan giza garapenaren eragile nagusien garrantzi proportzionala modu arrazoituan aplikatzea: herentzia versus ingurumena; heltzea versus ikastea.

Zehaztuta, gai izan behar du...
-Bizi-zikloan zehar gertatzen diren aldaketa biologikoak, kognitiboak, sozialak eta afektiboak identifikatzeko.
-Gizakiak bere garapenaren aldi guztietan dituen ezaugarriak eta ezaugarri horien agerpideak ezagutzeko.
-Giza portaera interpretatzeko garapen-aldia kontuan hartuta.
-Garapen-aldia edo maila zein den zehazteko tresna eta teknika egokiak aukeratzeko eta erabiltzeko.
-Artikulu eta dokumentu zientifikoak bilatzeko, laburtzeko eta aztertzeko.
-Irakasgaian ikasitakoaren aplikazioak identifikatzeko bere errealitatean eta inguruan.

C.G. Pensamiento Creativo (Grado en Educación Social): Genera procesos de búsqueda y descubrimiento de soluciones nuevas e inhabituales. En concreto: Percibe la información de forma abierta, desde distintas perspectivas utilizándola para generar nuevas ideas y enfoques.

C.G. Pensamiento Analógico (Grado en Trabajo Social): Logra establecer relaciones de semejanza o similitud entre contenidos distintos. En concreto: Utiliza analogías de manera intuitiva para relacionar ideas y expresar sus ideas.

C.E. Identificar la singularidad de cada periodo de desarrollo desde una perspectiva del Ciclo Vital.

C.E. Explicar las principales características de las distintas fases del ciclo vital teniendo en cuenta las dimensiones biológicas, cognitivas y socio-afectivas implicadas.

C.E. Atribuir de forma razonada a situaciones prácticas la importancia proporcional de los principales determinantes del desarrollo humano: herencia versus ambiente; maduración versus aprendizaje.

EDUKIAK

Euskeraz eta gaztelaniaz:

1. gaia. Bilakaera-prozesua. Garapen-aldiak. Teoriak eta metodoak.
2. gaia. Mundura iristea. Jaio aurreko aldia eta jaio berria.
3. gaia. Haurtzaroko garapena: Garapen psikomotorra eta kognitiboa. Komunikazioaren eta hizkuntzaren garapena. Afektibitate eta gizarte arloetako garapena.
4. gaia. Nerabezaroko aldaketak. Aldaketa fisiko eta fisiologikoak, garapen kognitiboa, afektiboa eta soziala.
5. gaia. Helduaroa eta zahartzea (hirugarren eta laugarren adinak). Aldaketa fisiko eta fisiologikoak. Aldaketa kognitibo, afektibo eta sozialak.

Tema 1. El proceso de cambio evolutivo. Las etapas del desarrollo. Teorías y métodos.
Tema 2. La llegada al mundo. Antes del nacimient o y el recién nacido.
Tema 3. Desarrollo en la infancia y niñez: Desarrollo psicomotor y cognitivo. Desarrollo de la comunicación y del lenguaje. Desarrollo
afectivo y social.
Tema 4. Cambios en la adolescencia: Cambios físicos y fisiológicos, desarrollo cognitivo, afectivo y social.
Tema 5. Edad adulta y envejecimiento (tercera y cuarta edad): Cambios físicos y fisiológicos. Cambios cognitivos, afectivos y sociales.

IRAKAS-IKASTEKO ESTRATEGIAK

- Irakasleak oinarrizko teoria eskainiko du.
- Klasean irakasgaiaren edukiei buruzko bideoak ipiniko dira.
- Beharrezkoa izango da irakasgaiaren edukiei buruzko irakurgaiak ulertzea eta aztertzea.
- Ikasleek derrigorrezko lanak egin beharko dituzte.
- Derrigorrezkoa da klasera etortzea.

EBALUATZEKO SISTEMA

Irakasgaiaren ebaluazioak bi zutabe dauzka:

Lehenik, derrigorrezko lanak: alde batetik, eguneroko klaseko lanak (ariketa laburrak) (% 20); eta bestetik, kanpoko lanak. Azken kasuan, ikasleek oinarrizko bi lan berezi egin beharko dituzte: lehenengoan, umeei eta nerabeei aplikatzeko ariketak sortuko dituzte taldeka. Lan horren balioa % 20 izango da. Bigarrenean, helduaroari edota zahartzaroari buruzko lan bat prestatuko dute taldeka. Horrez gain, talde bakoitzak bere lanaren ahozko defentsa egin beharko du seihilekoa bukatzerakoan. Lan horren balioa % 20 izango da.

Egindako lan guztietan APA arauak jarraituko dira.

Bigarrenik, seihilabetea bukatzean ikasle guztiek idatzizko azterketa bat egingo dute. Azterketa horrek bi zati edukiko ditu: alde batetik, clostesta hiru aukerako 50 itemekin, eta bestetik, bi galderako azterketa irekia egongo da. Azterketa horren balioa % 40 izango da. Ikaslea bi zatiak erantzutera behartuta dago.

Beharrezkoa izango da zati bakoitzean, bai azterketan bai lanetan, gutxienez % 40 ateratzea. Eta guztira, % 50.

Aparteko konbokatorian (uztailaren deialdian): irizpide berak mantenduko dira. Eta seihilabeteko etortzea ez bada nahikoa (gutxienez, % 80), orduan ikasleak irakasleari lan gehigarri bat eskatuko dio.

Azken oharra:

La evaluación de las competencias contempla, en primer lugar, la competencia genérica de pensamiento creativo (Educación Social) o pensamiento analógico (Trabajo Social) con un 70 % y, en segundo lugar, las distintas competencias específicas anteriormente mencionadas con un 30 %.

DOKUMENTAZIOA

Seihilabetean zehar irakasleak irakasgaiaren eduki guztiari buruzko erreferentzia bibliografikoak emango ditu.